

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

GAIAK

<p>7.go Finalurrekoa – DONOSTIAKO Belodromoa Aurkezlea: Saroi Jauregi</p>

10eko handia

Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi

Autobideko ordainlekuan egiten duzen lan. Oraintxe pasatu dira zuen aurretik 34 polizia-auto Madrilera bidean.

Maialen hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Uxue Alberdi eta Jon Maia

Salaketa jarri zenieten zuen senar ohiei tratu txarrak zirela eta. Kafetegian zaudete orain kafe hartzen eta kanpoan dauden zuen bizkarzainei begira zaudete.

Uxue hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Iñaki Gurrutxaga eta Arkaitz Estiballes

Senideak zarete. Gaur, liburu hau ikusi duzue amaren mesanotxean, "Nola aurre egin minbiziari".

Iñaki Gurrutxaga hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

8ko txikia

Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi

Uxuek nahi ez zuen arren, txakurra ekarri zenuen bion etxera, Maialen. Gaur, etxe-atarian aurkitu dituzu txakurra bera eta zure traste guztiak.

Maialen hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Aitor Sarriegi eta Iñaki Gurrutxaga

Zuk Aitor zauri bat egin duzu besoan, eta Iñaki erizaina puntuak ematen hasi zaizunean, konturatu zara dardarka duela eskua.

Aitor hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Jon Maia eta Arkaitz Estiballes

Lagunak zarete. Zuk Jon ez duzu kirolik egin urtetan, eta Arkaitz, berriz, egunero joaten da kiroldegira. Konbentzitu zaitu zu ere, Jon, eta berarekin joan zara gaur. Abdominalak egiten hasi, eta hamar egiterako geratu egin da Arkaitz, ezinean.

Jon hasita, hiruna bertso zortziko txikian

10eko txikia

Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga

Zuk, Uxue, duela urte batzuk gainditu zenuen droga mendekotasuna. Gaur, Iñaki semearen gelan, hatxixa eta erretzeko papera aurkitu dituzu.

Uxue hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Jon Maia eta Maialen Lujanbio

Zu Jon prostituta zara. Azken hilabeteen astero bezala, Maialen bezeroa sartu da zure gelan. Lana utzi, eta berarekin ezkontzeko eskatu dizu gaur.

Jon hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Arkaitz Estiballes eta Aitor Sarriegi

Bananduta zaudete, eta txandaka zaintzen duzue zuen haurra, asteburu batean batek eta bestean bestek. Gaur, Arkaitz haurraren ardurarik ez duzula eta, parrandara atera zara lagunekin. Eta hara non ikusi duzun Aitor bikotekide ohia taberna batean.

Arkaitz hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Lauko handia

Iñaki Gurrutxaga eta Maialen Lujanbio

Finalerako sarrerarik gabe geratzeko beldurrez, atzo jarri zineten leihatilaren aurrean, kanpin-denda eta guzti. Lerroan zuen aurretik zegoenak erosi ditu azken sarrerak.

Iñaki hasita, seina koplak, lauko handian.

Arkaitz Estiballes eta Uxue Alberdi

Saunan zaudete biok, eta atea trabatuta geratu da. Ezin zarete atera.

Arkaitz hasita, sei koplak, lauko handian.

Aitor Sarriegi eta Jon Maia

Zuen bikotekideak tenis-jokalariak dira. Haien partida bat ikusten ari zarete, eta haien marruak entzuten.

Aitor hasita, seina koplak, lauko handian.

Kartzela

Abokatua zara. Eskuartean izan duzun azken kasuko dokumentazioa gordetzen ari zara.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.